

Bageraren buletina

2019 abendua

Kaixo bagerakide!

Abenduko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

Donostiako Euskaltzaleon Topaketak (DET)



Hamarnaka herritar euskaltzale bildu ginen azaroaren 16an Donostiako Euskaltzaleen Topaketetan (DET). Lau orduz luzatu zen saioan, euskarak hirian bizi duen egoeraren diagnostikoa egin, eta hizkuntzak etorkizunera begira dituen erronken inguruan hausnartu genuen. Bertan ateratako ekarpen eta ondorioak bildu ditugu eta guztion eskura jarriko ditugu abendutik aurrera www.bagera.eus atarian.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekimen izango dira Donostiako auzoetan. Egitarauen informazioa www.bagera.eus helbidean aurki dezakezu.

Ekimen hauetaz gain, **EUSKARALDI**atik urtebete eta urtebete **EUSKARALDI**arako ekimena burutuko da abenduaren 3an, **11:00etan Zuloaga plazan** (Eguraldi txarra eginez gero, San Telmo barruan).

Urtebete igaro da Euskaraldiaren lehen edizioa egin zenetik eta urtebete barru, 2020ko azaroan, jarriko da martxan bigarren edizioa. Hori dela eta, Donostiako Euskaraldiak herritarrak gonbidatu nahi ditu abenduaren 3an, astearte goizez, egingo den kale ekintzara. Bertan, herritarron bizipenak jaso eta hurrengo edizioari begira ditugun desirak eta nahiak partekatuko ditugu. Ekitaldi irekia izango da eta edonork parte hartu ahal izango du. Anima zaitetz!

Eta, nola ez, aurtengoan ere, Bagera Elkarteak hiru jarduera antolatu ditu Euskararen Nazioarteko eguna ospatzeko: Erromeria, Erraiak dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia eta mintzodromoak.

Erromeria

Azaroaren 30ean, Erromeria Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren laguntzaz, ohi bezala Parte Zaharreko Plaza Berrian 18:00etan. Dinamizatzaile lanetan Jone Muniategiandikoetxea eta Klaudia Erentxun arituko dira.

“Erraiak” dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia

Abenduaren 1ean, 17:30ean, Erraiak dokumentala ikusteko aukera izango dugu eta ondoren zuzendariarekin solasaldia egingo da.

Ekain Martinez de Lizarduy Stürtzek zuzendu eta Arteman komunikazioak ekoiztako lanak irrintzia du ardatz eta honako galderei erantzutea helburu: «Noiztik dugu irrintzia gure artean? Bizirik jarraitzen al du? Zer eragin du kostaldeko marinelen jardunean? Zer eragin barnealdeko bailaren egunerokoa?»

33 minutuko lana da 'Erraiak' eta irrintziaren jatorria, zentzua, Euskal Herriko txoko ezberdinetan hartzen duen izena eta izateko arrazoia aztertzeko saiakera da.

Mintzodromoak

Abenduaren 3an, Bagera Donostiako Elkarteak, Donostiako euskaltegiak, Euskara Zerbitzua, eta San Telmo museoarekin elkarlanean antolatzen da Mintzodromoa. Oraingoan, 2 txandetan parte hartzeko aukera izango da; 10:00etan eta 17:00etan.

Animatu eta izena eman mintzalaguna@bagera.eus helbidera mezu bat bidaliz edo [943005074](tel:943005074) telefono zenbakira deituz.

Elkarrizketa Filosofikoak

Abenduaren 3an, 19:00etan, izango da urteko azken Elkarrizketa Filosofikoa Urrats Euskaltegian ([Amezketarrak kalea, 12](#)). Gaia: euskalduntasun etnokulturaletik euskalduntasun nazionalera. Abiapuntuak:

- Joxe Manuel Odriozolaren *Nora goaz euskalduntasun honekin?*
- "Komunikazio esparru nazionalik gabe, ezin da euskal naziorik eraiki".- Josu Amezaga (*Larrun* 235. alea)
- Eusko Ikaskuntzaren agiria. "Euskararen Etorkizuneko eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen"

Bageraren Zineforuma

Bagera elkarteak zine-foruma jarri du martxan ikasturte honetan. Asmoa, hilean behin euskaraz sortutako zein euskarara ekarritako (bikoizketaren bidez edo azpidatziekin) lanak proiektatzea da Koldo Mitxelena Kulturunean.

Hilabete honetako emanaldia **abenduaren 10ean** izango da 18:30ean eta [The Florida Project](#) filma proiektatuko dugu. Solasaldian Zigor Etxebeste (Zinema Kritikaria) parte hartuko du eta aurkezle lanetan Ander Gisasola arituko da.

Bikografiak: bi ibilbide elkarrizketan



Bikografien abenduko gonbidatuak Olatz Salvador (musikaria) eta Telmo Trenor (musika elektronikoaren ekoizle eta DJ-a) izango dira. Gidari lanetan Leire Palacios kazetaria arituko da **abenduaren 18an** 19:30etik aurrera Tobacco Days liburu-dendan (Tabakalera).

Bi parte hartzaileen biografien errepasoa izango da saioaren ardatza. Bakoitzaren alde publiko/ezagunaz gain, beren bizitzen inguruan solastea da ideia. Anekdotak, gertaera xebreak, bizipenak ... Elkarrizketa informal hauen bidez, hizkuntzak herritarren eguneroko bizitzan duen isla jarri nahi dugu agerian.

Elkarlanean...

Bagera Elkartean, azken urteetan, elkarlan eta lankidetzaz eredu berriak lantzen ari gara euskararen erabilera zabaltzeko asmoz eragile ezberdinekin. Oraingoan, [Kaixomaitia.eus](#)-ekin (euskaldunon harremanetarako interneteko gunea) eta Pandora tabernarekin (Gros) elkarlanean zenbait ekimen antolatuko ditugu; lehenengoa, abenduaren 19an, 20:00etan, "*Ber(ts) o saio erotiko festiboa*" Kijera Gaztetxeko, Añorgako eta Bagerako bertso eskolako kideekin.

Zein gai jarriko zenieke bertsolariei? Bidali zure proposamena <http://labur.eus/bertsopandora> eta bertso saioan egingo dugun zozketan parte hartzeko aukera izango duzu.

Bagerakideen kuota

2019ko errenta aitorpena egitean urteko kuota kengarri izan ahalko da, baldin eta, zure datuak eguneratuak ditugun. Horretarako, nortasun agiriaren zenbakia eta helbidea ondo izatea beharrezkoa da. Datuak eguneratuak ez badituzu abenduaren 31a baino lehen jakinarazi behar dizkiguzu idazkaritza@bagera.eus helbide elektronikora idatziz edo bulegora deituz.